

## TOKI ADMINISTRAZIOA

3

## ADMINISTRACIÓN LOCAL

## GETARIAKO UDALA

*Iragarkia*

Arauzko informazio publikorako epea bukatu ondoren, erreklamazio edo oharpenik aurkeztu gabe, finko eta behin betikotzat jo zuen eta ordenantzak aldatzeko akordioa, zeina Osoko Bilkurak berak 2021eko maiatzaren 25ean, hasierako izaeraz, hartu zuena eta 2021eko ekainaren 4ean Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zena (104 zenbakiarekin), 2021.01.01etik aurrerako ondorioekin.

Aldatutako ordenantza argitaratu da Getariako Udaletxeko web orrian: [www.getaria.eus](http://www.getaria.eus) helbidean eta hemen jasotzat ematen da bere ulergarritasun osoa gerta dadin.

Gipuzkoako Hazienda Lokalak Erregulatzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 16.4 artikulua agintzen duen araber, hau guztia argitara ematen da ezagutua izan dadin eta aipatu aginduak aurreikusten dituen gainerako ondorioak izan ditzan.

Interesatuek bide administratiboan behin betikoa den erabaki honen aurka jo dezakete, Bilbon dagoen Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Aretoan administrazioarekiko auzi-helegitea jarriz bi hilabeteko epean, izaera orokorreko xedapena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Ohartarazten da, baita ere, helegitea aurkezteko epea ebazpena jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunear hasten bada ere, hori epea amaitzen den hilabetean, jakinarazpen- edo argitalpen-datari dagokion egunean, amaitzen dela. Egun hori jaieguna edo baliogabea bada, epea hurrengo lanegunera arte luzatuko da.

Baita ere, jakinarazten da, helegite hori epea iraungitzen deneko egunaren hurrengo laneguneko 15:00etara arte aurkeztu ahal izango da, Epaitegiaren Idazkaritzan edo, bestela, egongo balitz, ezarri den erregistro nagusiko zerbitzuan edo bulegoan, Auzitegi Konstituzionalak martxoaren 14an emandako 64/2005 Epaiaaren arabera.

Baita ere, aukeran eta Administrazioarako auzibidera jo aurretik, Erreklamazio Ekonomiko-Administratiboan aurkeztu ahal izango da Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren aurrean, hilabeteko epean, dagokion Ordenantza Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Getaria, 2021eko uztailaren 20a.—Haritz Alberdi Arrillaga, alkatea. (5053)

## AYUNTAMIENTO DE GETARIA

*Anuncio*

Transcurrido el plazo de información pública reglamentario, sin que se hayan presentado reclamaciones ni observaciones, se considera firme y definitivo el acuerdo sobre modificación adoptado con carácter inicial, por el Pleno Municipal en sesión celebrada el 25 de mayo de 2021 y publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa del 4 de junio de 2021 (número 104), con efectos 01.01.2021:

Las restantes estipulaciones de las referidas Ordenanzas, modificados en su caso, están publicados en la página web del Ayuntamiento de Getaria: [www.getaria.eus](http://www.getaria.eus). Y se dan por reproducidas a efectos de comprensión íntegra.

Todo ello se publica en cumplimiento de lo ordenado en el artículo 16.4 de la Norma Foral 11/1989 de 5 de julio Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, para general conocimiento y demás efectos previstos en el precitado artículo.

Contra la presente resolución que pone fin a la vía administrativa, las personas interesadas pueden presentar Recurso Contencioso-Administrativo, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la disposición de carácter general en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Se advierte que, si bien el plazo para la presentación del recurso comienza el día siguiente a la fecha de notificación o publicación de la resolución, finaliza el día equivalente a dicha fecha de notificación o publicación en el mes de vencimiento. Si el último día del plazo fuera inhábil o festivo finalizará el primer día hábil siguiente.

Asimismo, se informa que el recurso podrá presentarse hasta las 15:00 horas desde el día hábil siguiente al del vencimiento del plazo, en la Secretaría del Tribunal o, de existir, en la oficina o servicio de registro central que se haya establecido, de conformidad con la STC 64/2005 de 14 de marzo.

Asimismo, y si así se desea y previo a presentar recurso contencioso-administrativo, se puede presentar Reclamación Económico-Administrativa ante el Tribunal Económico-Administrativo Foral de Gipuzkoa, en el plazo de 1 mes contado a partir de la publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de la Ordenanza correspondiente.

Getaria, a 20 de julio de 2021.—El alcalde, Haritz Alberdi Arrillaga. (5053)



## Getariako Udala

Espediente kodea: 2021IAKU0002

Titularra: GETARIAKO UDALA

---

---

Maria Zendegi Zelaia, Getariako Udaleko bitarteko idazkari kontu-hartzaileak

ZIURTATZEN DU:

2021eko martxoaren 30ean egindako ohiko Udal Batzarraren aktan agertzen denez, besteen artean, hitzez hitz honela dion erabakia onartu zela:

---

---

### **1.- 2021. URTEAN ERAGINA IZAN DEZATEN ORDENANTZA FISKALEN LEHENDABIZIKO ALDAKETA ONARTZEKO IRIZPENA.**

#### **2021eko martxoaren 16ko Batzordean ONARTUTAKO IRIZPENA**

A) 2021eko urtarrilaren 30ean eskera egon da hilerri ondoko dorrean irrati aparailua jartzeko guifi.net sarea hedatu eta interneteko zerbitzua hobetzeko.

Berau udal azpiegitura izanik eta udal aprobetxamendu berezia egitea suposatzen duenez, egoki ikusten da udal tasetan txertatzea erabilera pribatuko tasa bezala.

Horrenbestez, proposatzen da Udal Jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik oraindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantzan baitan sartzea "Telekonomikaziorako azpiegituretan aprobetxamendu berezia egitea erabilera pribaturako" kontzeptu gisa. Bertan bi atal bereiztuko dira.

1. Batetik, antena edo antzerako instalazioentzako urteko 200€ bakoitzeko
2. Bestetik, koadro elektrikoa txertatzeagatik urteko 1.000€/m<sup>2</sup>.

B) Aparkaleku mugatuentzako ordenantza berriarekin lotuta, tasa berri bat txertatzea "19. Portuko TAO Tasa"-n. Era honetan, atal berri bat bereiztuko da tasa honen baitan:

1. Getarian dauden merkataritza establezimenduetako titularrak eta langileak (bigarren eta hirugarren sektorekoak), edo Getarian etxeko zaintza zerbitzuan jardueran dihardutenak ekainak 1etik irailaren 30era bitartean hamabost euroko (15,00€) tarifa.

Udalbatzarrari honako irizpena onartzea proposatzen zaio,

**IRIZPENA**



## Getariako Udala

*LEHENA: Jarraian zerrendatzen diren Ordenantza Fiskalak aldatu, berridatzi edo onartu, aurreko testuak ordeztuz edo berriak sortuz, azaldutako proposamenarekin bat etorriz:*

*6.- Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasarena.*

*7.-Udal jabari publikoaren erabailera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa arautzen dituen ordenantza.*

*BIGARRENA: Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren bosteko 11/89 Foru Arauaren 16.1 artikulua agintzen duena betetzeko, hartutako erabakiaren berri ematen da: Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez eta udaletxeko oholean plazaratzen den iragarki bidez, honela bada espedientea jendaurreko erakustaldian jartzen da, jarraiko arauei jarraiki:*

*Dokumentuak ikusgai daude: Udal honetako Idazkaritza-Kontuhartzaitzan.*

*Aztertzeko eta kasua balitz, erreklamazioak egiteko epea: 30 lanegun, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo lanegunetik kontatzen hasitakoa, bulego ordutegian.*

*Erreklamazioa egiteko gaitasuna dute: Uztailaren bosteko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikulua aipatzen dituenak.*

*Aurkezteko tokia: udalaren sarrera erregistroan.*

*Nori zuzendu erreklamazioa: Udal Batzarra.*

*HIRUGARRENA: Erakustaldiaren epea inolako erreklamazio edo oharpenik aurkeztu gabe igaroko balitz, hartutako erabakiak behin-betirako onartuzat hartuko dira. Erreklamaziorik aurkeztu gero, Udalbatzarrak ebatziko ditu.*

*LAUGARRENA: Gainontzeko Ordenantza Fiskaleko testu arautzaileak, idatzita dauden bezala mantenduko dira.*

Bozketa egin ostean, aldeko bozak 11, kontrako bozak 0 eta abstentzioak 0 izan dira.

Ondorioz, Osoko Bilkurak erabaki du:

*LEHENA: Jarraian zerrendatzen diren Ordenantza Fiskalak aldatu, berridatzi edo onartu, aurreko testuak ordeztuz edo berriak sortuz, azaldutako proposamenarekin bat etorriz:*

*6.- Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasarena.*

*7.-Udal jabari publikoaren erabailera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa arautzen dituen ordenantza.*

*BIGARRENA: Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren bosteko 11/89 Foru Arauaren 16.1 artikulua agintzen duena betetzeko, hartutako erabakiaren berri ematen da: Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren*



## Getariako Udala

bidez eta udaletxeko oholean plazaratzen den iragarki bidez, honela bada espedientea jendaurreko erakustaldian jartzen da, jarraiko arauei jarraiki:

Dokumentuak ikusgai daude: Udal honetako Idazkaritza-Kontuhartzaitetzan.

Aztertzeko eta kasua balitz, erreklamazioak egiteko epea: 30 lanegun, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo lanegunetik kontatzen hasitakoa, bulego ordutegian.

Erreklamazioa egiteko gaitasuna dute: Uztailaren bosteko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikulua aipatzen dituenak.

Aurkezteko tokia: udalaren sarrera erregistroan.


Nori zuzendu erreklamazioa: Udal Batzarra.

HIRUGARRENA: Erakustaldiaren epea inolako erreklamazio edo oharpenik aurkeztu gabe igaroko balitz, hartutako erabakiak behin-betirako onartuzat hartuko dira. Erreklamaziorik aurkeztu gero, Udalbatzarrak ebatziko ditu.

LAUGARRENA: Gainontzeko Ordenantza Fiskaleko testu arautzaileak, idatzita dauden bezala mantenduko dira.

Eta horrela jasota gera dadin eta bere ondorioetarako, Alkatearen oniritzia jasota eta bere aginduz, luzatzen da ziurtagiri hau. Azaroaren 26ko, 2568/1986 Errege Dekretuak 206 artikuluan xedatutako oharra espresuki eginez eta akta onartzerakoan testuari egin dakioken zuzenketen kalterik gabe, Getarian, .

OE  
Alkateak

<b>Sinatzailea:</b>	Alkatea Haritz Alberdi Arrillaga Idazkari Kontu hartzailea Maria Zendegi Zelaia
Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo Interneteko orrialde honetara: <b><a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/39/AAA2N906.rddH">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/39/AAA2N906.rddH</a></b>	

HARITZ ALBERDI ARRILLAGA 2021/04/13

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

GETARIAKO UDALA

*Iragarkia*

Arauzko informazio publikorako epea bukatu ondoren, erreklamazio edo oharpenik aurkeztu gabe, finko eta behin betikotzat jo zuen eta ordenantzak aldatzeko akordioa, zeina Osoko Bilkurak berak 2021eko apirilaren 29an, hasierako izaeraz, hartu zuena eta 2021eko apirilaren 15eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zena (68 zenbakiarekin), 2021.01.01etik aurrerako ondorioekin.

6. Zerbitzuak emateagatiko eta jarduerak egiteagatiko tasak arautzen dituen ordenantza.

7. Tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasak arautzen dituen ordenantza.

Aldatutako ordenantza argitaratu da Getariako Udaletxeko web orrian: [www.getaria.eus](http://www.getaria.eus) helbidean eta hemen jasotzat ematen da bere ulergarritasun osoa gerta dadin.

Gipuzkoako Hazienda Lokalak Erregulatzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 16.4 artikulua agintzen duenaren arabera, hau guztia argitara ematen da ezagutua izan dadin eta aipatu aginduak aurreikusten dituen gainerako ondorioak izan ditzan.

Interesatuek bide administratiboan behin betikoa den erabaki honen aurka jo dezakete, Bilbon dagoen Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Aretoan administrazioarekiko auzi-helegitea jarriz bi hilabeteko epean, izaera orokorreko xedapena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Ohartarazten da, baita ere, helegitea aurkezteko epea ebazpena jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunen hasten bada ere, hori epea amaitzen den hilabetean, jakinarazpen- edo argitalpen-datari dagokion egunean, amaitzen dela. Egun hori jaieguna edo baliogabea bada, epea hurrengo lanegunera arte luzatuko da.

Baita ere, jakinarazten da, helegite hori epea iraungitzen deneko egunaren hurrengo laneguneko 15:00etara arte aurkeztu ahal izango da, Epaitegiaren Idazkaritzan edo, bestela, egongo balitz, ezarri den erregistro nagusiko zerbitzuan edo bulegoan, Auzitegi Konstituzionalak martxoaren 14an emandako 64/2005 Epaiaren arabera.

Baita ere, aukeran eta Administrazioarako auzibidera jo aurretik, Erreklamazio Ekonomiko Administrazioa aurkeztu ahal izango da Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioaren aurrean, hilabeteko epean, dagokion Ordenantza Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Getaria, 2021eko uztailaren 17a.—Haritz Alberdi Arrillaga, alkatea. (4997)

AYUNTAMIENTO DE GETARIA

*Anuncio*

Transcurrido el plazo de información pública reglamentario, sin que se hayan presentado reclamaciones ni observaciones, se considera firme y definitivo el acuerdo sobre modificación adoptado con carácter inicial, por el Pleno Municipal en sesión celebrada el 30 de marzo de 2021 y publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa del 15 de abril de 2021 (Número 68), con efectos 01.01.2021:

6. Ordenanza reguladora de Tasas por prestación de servicios y realización de actividades.

7. Ordenanza reguladora de tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local.

Las restantes estipulaciones de las referidas Ordenanzas, modificados en su caso, están publicados en la página web del Ayuntamiento de Getaria: [www.getaria.eus](http://www.getaria.eus). Y se dan por reproducidas a efectos de comprensión íntegra.

Todo ello se publica en cumplimiento de lo ordenado en el artículo 16.4 de la Norma Foral 11/1989 de 5 de julio Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, para general conocimiento y demás efectos previstos en el precitado artículo.

Contra la presente resolución que pone fin a la vía administrativa, las personas interesadas pueden presentar Recurso Contencioso-Administrativo, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la disposición de carácter general en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Se advierte que, si bien el plazo para la presentación del recurso comienza el día siguiente a la fecha de notificación o publicación de la resolución, finaliza el día equivalente a dicha fecha de notificación o publicación en el mes de vencimiento. Si el último día del plazo fuera inhábil o festivo finalizará el primer día hábil siguiente.

Asimismo, se informa que el recurso podrá presentarse hasta las 15 horas desde el día hábil siguiente al del vencimiento del plazo, en la Secretaría del Tribunal o, de existir, en la oficina o servicio de registro central que se haya establecido, de conformidad con la STC 64/2005 de 14 de marzo.

Asimismo, y si así se desea y previo a presentar recurso contencioso-administrativo, se puede presentar Reclamación Económico-Administrativa ante el Tribunal Económico-Administrativo Foral de Gipuzkoa, en el plazo de 1 mes contado a partir de la publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de la Ordenanza correspondiente.

Getaria, a 17 de julio de 2021.—El alcalde, Haritz Alberdi Arrillaga. (4997)



## Getariako Udala

Espediente kodea: 2021IAKU0003

Titularra: GETARIAKO UDALA

---

Maria Zendegi Zelaia, Getariako Udaleko bitarteko idazkari kontu-hartzaileak

### ZIURTATZEN DU:

2021eko maiatzaren 25ean egindako ohiko Udal Batzarraren aktan agertzen denez, besteen artean, hitzez hitz honela dion erabakia onartu zela:

---

Nahia Iturbek azaldu du etxebizitza hutsen erregistroa egitean, hainbat kasuistika agertu direnez, horiei erantzuteko sortu dela aldaketa hau. Hitzez hitz irakurri du batzordeak onartutako irizpena.

2021eko maiatzaren 25eko Batzordean **ONARTUTAKO IRIZPENA:**

### **BATZORDERAKO PROPOSAMENA**

- A. *Getariako Ordenantza Fiskalaren 4.artikuluan “Errekargua ohiko bizilekua ez direlako” atalean, 4.7.1.atalari ondorengo esaldia gehitzea: “Kontratu hauen berri Foru Ogasunari emango zaio, jakinean egon dadin. Ez dira onartuko dohaineko zesioak eta prezio sinbolikoa duten kontratuak. Etxejabeek Eusko Jaurlaritzan depositatuako Fiantzaren agiria erakutsiko dute”.*
- B. *Getariako Ordenantza Fiskalaren 4.artikuluan “Errekargua ohiko bizilekua ez direlako” atalean, 4.7.6.atalari ondorengo esaldia gehitzea. “Kontratu hauen berri Foru Ogasunari emango zaio, jakinean egon dadin. Ez dira onartuko dohaineko zesioak eta prezio sinbolikoa duten kontratuak. Etxejabeek Eusko Jaurlaritzan depositatuako Fiantzaren agiria erakutsiko dute”.*
- C. *Getariako Ordenantza Fiskalaren 4.artikuluan azkenurreko paragrafoan “Udalak egiaztatu ahal izano ditu interesatuak emandako datuak, iruzurrak sahiesteko” esaldiari gehitzea “Udalak eskatu ahal izango die beharrezkoak diren dokumentazioak, etxejabeek, egiaztatu ahal izateko, kasuan kasu, egoera ezberdinen erregularizazioa”.*



## Getariako Udala

EAJko bozeramaileak aipatu du neurri hau berandu datorrela; legealdi hasieran kontuan hartu beharrekoak zirela, hau da, errekarquak martxan jarri aurreitk eta hau “partxe” bat soilik dela esan du. Aurreikusi behar zela dio eta orduan hau aurtengo hirugarren aldaketa dela ikusita Ordenantza Fiskalean, EAJk ezezko botoa emango duela mahaigaineratu du, hutsunea dagoelako beraien ustez, eta ordenantza fiskala bultzatu aurretik egin behar direlako horrelako aldaketak.

Horri erantunez, Nahia Iturbek erantzuten du gauzak hobetzen doazela, erabilerak erakusten duelako dauden hutsuneak eta hortik meioratzen dabilatzatela. EAJko bozeramaileak erantzuten dio, hutsune horiei politikariek aurreratu egin behar direla eta neurriak hartzeko prest egon eta prestatuta gauden ala ez aurreikusi behar dugula; duen helbururako balio duen ala ez ikusteko. Ildo beretik, Alkateak zorionak eman dizkie Udaleko harrerako langileei etxebitza hutsak detektatzen egin duten lanagatik eta egindako kontraste handiak erakutsi digulako etxebizitzaren egoera. Dinamismoak eraman gaitu ordenantza aldatu eta gainkargak kudeatzea, dipatu du; baita zoriontzeko horretan lan ona egiteaz gain banan banan gutunak bidali direnez, herritar asko gerturatu dira beraien egoera regularizatzerara udaletxera eta hori ere zoriontzekoa da.

Bozketa egin ostean, aldeko bozak 6, kontrako bozak 4 eta abstentzioak 0 izan dira.

Ondorioz, Osoko Bilkurak erabaki du ordenantza fiskalaren aldaketa hauek txertatzea:

- Getariako Ordenantza Fiskalaren 4.artikuluari “Errekargua ohiko bizilekua ez direlako” atalean, 4.7.1.atalari ondorengo esaldia gehitzea: “Kontratu hauen berri Foru Ogasunari emango zaio, jakinean egon dadin. Ez dira onartuko dohaineko zehioak eta prezio sinbolikoa duten kontratuak. Etxejabeek Eusko Jaurlaritzan depositatuako Fiantzaren agiria erakutsiko dute”.
- Getariako Ordenantza Fiskalaren 4.artikuluari “Errekargua ohiko bizilekua ez direlako” atalean, 4.7.6.atalari ondorengo esaldia gehitzea. “Kontratu hauen berri Foru Ogasunari emango zaio, jakinean egon dadin. Ez dira onartuko dohaineko zehioak eta prezio sinbolikoa duten kontratuak. Etxejabeek Eusko Jaurlaritzan depositatuako Fiantzaren agiria erakutsiko dute”.
- Getariako Ordenantza Fiskalaren 4.artikuluari azkenurreko paragrafoan “Udalak egiaztatu ahal izano ditu interesatuak emandako datuak, iruzurrak sahiesteko” esaldiari gehitzea “Udalak eskatu ahal izango die beharrezkoak diren dokumentazioak, etxejabeek, egiaztatu ahal izateko, kasuan kasu, egoera ezberdinen erregularizazioa”.

Geroago, ondorengo gaia lantzerakoan, Ibon Gerekak gehitzen du gai honi buruz, literalki irakurriaz zer izan den aurka bozkatu duten horri buruz. Hobekuntza guztiak




## Getariako Udala

sartu dituztela azpimarratzen du, eta EAJri esaten dio hobekuntza horien aurka bozkatu dutela.

EAJk erantzun du, 2012tik hona egin dela politika bat salatu nahi dutena boza horrekin. Ez aipatzen diren neurri eta hobekuntza horiek, baizik eta eraman den gestioa orokorrean bozkatu nahi izan dutela.

Eta horrela jasota gera dadin eta bere ondorioetarako, Alkatearen oniritzia jasota eta bere aginduz, luzatzen da ziurtagiri hau. Azaroaren 26ko, 2568/1986 Errege Dekretuak 206 artikuluan xedatutako oharra espresuki eginez eta akta onartzerakoan testuari egin dakioken zuzenketen kalterik gabe,

Getarian,

<b>Sinatzailea:</b>	Alkatea Haritz Alberdi Arrillaga Idazkaria Maria Zendege Zelaia
Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo Interneteko orrialde honetara: <a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/39/AAA2XY6K.jCCi">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/39/AAA2XY6K.jCCi</a>	

HARITZ ALBERDI ARRILLAGA2021/05/27

MARIA ZENDEGI ZELAIA2021/05/27